

Etxegabetze ilegala san frantzisko auzoan.

AZET ETXEBIZITZA SINDIKATUA :: 26/11/2022

[Euskara] ETXEGABETZE ILEGALA SAN FRANTZISKO AUZOAN.

Atzo, azaroaren 25ean, Bilboko Udaltzaingoak ilegalki eta biolentziaz desalojatu zuen Sanfrantzisko auzoko bizilaguna den sindikatuko kide bat. Kide hori San Frantzisko kaleko 18. zenbakian bizi zen, Blackstone funts putrearen jabetza den etxean. Atzo, beste behin, ikusi ahal izan genuen Bilboko Udalak nola uzten dituen kale gorrian auzokideak, geroz eta etxebizitza gehiago uzteko espekulatzailerik handien eskuetan.

Ondokoak izan ziren gertakizunak: atzo, arratsaldeko 17:00etan, uniforme jantzitako matoi talde batek gure kidearen etxeko atea bota zuten, Bilboko Udalaren aginduz; kidea identifikatu eta kale gorrian utzi zuten. Argi dugu esku-hartze terrorista hau Bilboko Udalak aurrera daraman pobreen aurkako gerraren baitan kokatzen dela, eta zehazki, egoera zaurgarrienean aurkitzen diren horien aurkako gerraren baitan, gazte migratzaileen aurkako gerran, zehazki. Atzoko desalojoa klase arteko gerraren baitako ekintza baita, baina ez hori bakarrik: arrazakeria instituzional eta supremazismo polizial ekintza ere bada. Parean pertsona arabiar bat aurkitu izan ez balute, ez lukete hainbesteko segurtasunez eta zigorgabetasunez jardungo, hori oso argi dugu.

San Frantzisko auzoan, etxebizitza arazoa infernu bilakatzen ari da desjabetuontzat. Inbertitzaile handiek eta funts putreek auzo honetan aurkitu dute "urrezko arrautzak erruten dituen oiloa". Duela urte batzuetatik hona, ikusten ari gara nola pasatzen diren geroz eta etxebizitza gehiago subjektu hauen jabetza izatera, eta ondorioz, nola uzten dituzten geroz eta bizilagun gehiago kalean. Soilik azken hilabeteak kontutan hartuta, badakigu gutxienez hiru etxegabetze eman direla San Frantzisko auzoan, eta dozenaka pertsona beren bizitokitik kanporatu dituztela Global Pantelaria edo Blackstone bezalako funts putreek. Higiezinaren sektoreko munstroa den Blackstone-n kasua eskandalagarrietan eskandalagarrienetarikoa da, zer esanik ez krisi eta langile klasearen pobretze garaiotan: bere higiezinaren ondareak 320.000 milioi dolarreko balioa dauka, eta Espainiako Estatuan milaka etxebizitza ditu; are, helburu espekulatzailerik kudeatzen ditu formalki estatuaren jabetzakoak diren hainbat etxebizitza, Sareb kasu ezagunarekin egiten duten bezala, adibidez. Bere ondarea etengabe ari da hazten, eta era berean, etengabe ari da hazten jendilaje honen interesengatik etxerik gabe geratzen ari den pertsona kopurua.

Horixe dugu atzoko etxegabetzearen lehen erantzulea: Blackstone funts putrea, gure auzoak erosten eta gure miseriarekin irabaziak ateratzen ari den putre sarraskijalea.

Baina atzoko etxegabetzearen egiazko erantzule politikoa Bilboko Udala da: bere Udaltzaingoa izan zen gure kidearen etxeko atean aurkeztu zena, matoi taldea bailitzan. Beraiek izan ziren, aurrean zeukatena pertsona gazte eta migratzailea zela ikustean, gure kidea kaleratzeko legeak nahieran hautsi zituztenak; nazi koadrila baten biolentzia berarekin. Beraiek izan ziren agindu judizialik gabe, irekitako prozedurarik gabe, modu biolento eta kriminalen atea ostikadaka botatzea erabaki zutenak, zeren "zer axola dio, moro

bat gehiago kalean".

Zentzu horretan, Bilboko Udala interpelatzeko dugu etxegabetze honen erantzule politiko gisa. Eta horregatik, Udalarik gure kidearentzako aterabidea eta alternatiba habitazionala exijitzen dizkiogu, uneotan kale gorrian aurkitzen baita.

INDARREZ KENDU DIGUZUEN DEN-DENA BERRESKURATZERA GOAZ! ETA EZ DUGU AMORERIK EMANGO LORTU ARTE!

BEREN JABETZAK EDO GURE BIZITZAK, EZ DAGO ERDIBIDERIK!

[Castellano]

DESALOJO ILEGAL EN SAN FRANCISCO 26/11/2022

Ayer, 25 de noviembre, la Policía Municipal desalojó ilegalmente y de forma violenta, a un vecino del barrio Sanfrancisco y compañero del sindicato, que residía en un piso de la calle Sanfrancisco 18, propiedad del fondo butre Blackstone. Ayer pudimos ver, una vez más, como el Ayuntamiento de Bilbao deja a vecinos en la calle, para dejar cada vez más viviendas en manos de la gran especulación inmobiliaria.

Estos son los hechos: a las 5 de la tarde de ayer, un grupo de matones uniformados, bajo órdenes del Ayuntamiento de Bilbao y sin ninguna orden judicial, tiraron abajo la puerta de nuestro compañero, identificándole y dejándole en la calle. Tenemos claro que esta actuación terrorista se inscribe dentro de la guerra contra los pobres llevada a cabo por el Ayuntamiento de Bilbao y, en particular, la guerra contra aquellos que se encuentran en situaciones más vulnerables, como los jóvenes migrantes. Porque el desalojo de ayer es un acto de guerra de clases, pero es también un acto de racismo institucional y de supremacismo policial: si no se hubiesen encontrado delante una persona árabe, estamos seguras de que no hubieran actuado con tanta seguridad e impunidad.

En el barrio de Sanfrancisco el problema de la vivienda se está convirtiendo en un infierno para las desposeídas. Grandes inversores y fondos butre han encontrado en este barrio "la gallina de los huevos de oro". Ya dese hace años estamos observando cómo cada vez más viviendas pasan a ser propiedad de estos sujetos, que están dejando a cada vez más vecinas en la calle. Solo en los último meses tenemos constancia de al menos tres desahucios en San Francisco y una decena de personas que han sido arrancadas de sus casas por fondos buitres, como Global Panelaria o Blackstone. El caso del negocio del monstruo inmobiliario Blackstone es uno de los más escandalosos, todavía más en estos tiempos de crisis y empobrecimiento de la clase trabajadora: su patrimonio inmobiliario asciende a 320.000 millones de dólares y tienen decenas de miles de pisos en el Estado español, donde además gestionan de forma especulativa hasta viviendas que, formalmente, son de propiedad estatal (como el conocido caso de la Sareb). Su patrimonio no deja de crecer, como tampoco deja de crecer el número de personas que se quedan sin hogar por los intereses especulativos de esta gentuza.

Aquí tenemos el primer responsable del desalojo de ayer: el fondo de inversión Blackstone, ese maldito buitre carroñero que está comprando nuestros barrios y saca beneficios de nuestra miseria.

Pero el verdadero responsable político del desalojo de ayer es el Ayuntamiento de Bilbao: fue su policía municipal la que se presentó en la puerta de nuestro compañero como si de matones se tratase. Fueron ellos quienes, cuando vieron que allí vivía una persona joven y migrante, se saltaron la Ley a sus anchas, para echar a la calle a nuestro compañero, con violencia digna de una panda de nazis. Fueron ellos quienes, sin orden judicial, ni ningún procedimiento abierto, decidieron tirar la puerta a patadas, de forma violenta y criminal, porque “que más da, un moro más en la calle”.

En este sentido, es al Ayuntamiento de Bilbao a quien interpelamos como responsable político de este desalojo. Y es al Ayuntamiento a quien exigimos que dé una solución y una alternativa habitacional a nuestro compañero, que ahora mismo se encuentra una vez más en la calle. ¡VAMOS A RECUPERAR TODO LO QUE NOS HABÉIS ARREBATADO! Y NO VAMOS A PARAR HASTA CONSEGUIRLO!

¡SUS PROPIEDADES O NUESTRAS VIDAS, NO HAY TERMINO MEDIO!

<https://eh.lahaine.org/etxegabetze-ilegala-san-frantzisko-auzoan>